

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Uztailak 24  
417. zenb.



# Zeus

Arrasaten eginiko  
auto elektrikoa

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KIROLAK: MAKATZENAKO PILOTA TXAPELKETA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: NORA ISASI • KULTURA: BIBLIOPORRAK



# LIZARRALDE

## KIROLAK

Abentura atsegin duzunez,  
eta naturaz gozatzeko,  
presta ezazu zeure bizikleta  
oporretarako



- Abuztuan goizez zabalik!
- Errepiderako eta mendirako bizikleta bereziak
- Bizikletaz ibiltzeko jantzi eta oinetakoetan espezializatuak
- Neskentzako jantzi bereziak

Foruen Plaza, 1-2 San Andres ARRASATE Tel.: 943 79 91 47

Plaza 16 OÑATI Tel.: 943 79 99 96

# Ixilpeko dinamika

Udala menperatzen duen "hirukoteak" ez du ezer esaten publikoki edo kanporantz, ospitale zaharreen kokatutako gaztetxearen etorkizunaz eta egoeraz. Ixilpean dabilta, baina kalean badira zurrumurruak: azkena, hor liburutegi berria jarriko dutela. Honen aurretik, Arrasate Musikal, erakusketa areto bat, batzoki erraldoi bat, eta abar...



Iker Barandiaran

Aspaldiko kontua da, gaztetxearen oraingo (eta dagoeneko zazpi urte baino gehiago daukan) kokapena ez dela behin-betiko. (Hasiera batean frantziskotarren eraikinaren gainean izandako tirabirengatik). Argudio honen laguntzaz, urte luzeetan egin nahi izan diren hainbat hobekuntza eta konponketa oztopatu egin dira, "ez du merezi, laster bazoazte eta...", lelopean. Arrazoi horrengatik, adi-

bidez, ezin dira ganorazko leiho eta atek jarri hango soinua leun dadin. Pareta oso lodiak direnez, hauek aldatuz gero, inguruko bizilagunen zako aproposa lizatekeelako.

Etorkizuneko balizko gaztetxeari dagokionez, gogoratu behar diegu Gaztetxe Asanbladak orain urte batzuk kaleratutako inkestan zer erantzun zuen gehiengoak: erdialdean kokatzea ezinbestekotzat

jotzen zela. Eta hau, ondo eginez gero, alde guztientzako egoki buru zitekeen.

Herriko agintariek gaztetxeari buruz publikoki ezer gutxi esaten zuten, nabarmendu beharko dugu alkateak ATBn orain dela gutxi esandakoa: "Gaztetxeak ez dituela herriko gazteak ordezkatzeko, Gaztetxea ez dela herriko gazteriaren eredugarri".

Egia esan, gaztetxe batek herriko gazteria osoa (osoa ezinezkoa da) batu

dezan, herri horretan ez da beste ezer egon behar. Ez beste gazte elkarterik, ezta kirol antolakuntzarik, ezer ere ez. Eta hau ez da Arrasateko kasua, inondik ere. Hau aipatu ostean, kontuan izan gazte bakoitzak helburu, balore, bizimodu eta gustu oso ezberdinak ditugula. Horretaz gain, gaztetxe dinamika ekintzak burutzea da, azpiegitura eta aurrekontu berezirik gabe, edozeinek parte hartu eta sor dezakeelarik. Aspaldian ere jende gaztetxe dexente batu da. Ateak zabalik egongo dira beti, latsa da kendu behar dena.

Gaztearen eredu garritasunari dagokionez, gauzak egin nahi dituen gazteriaren zati bat ordezkatzeko du eta hori beharbada ez da ohikoena. Baina beste alde batetik, edo beste modu batean esanda, zein gazteria mota nahiko luke honek gaztetxeak ordezkatzeko?

Bejondeixola, beste batzuk musutruke (herriko gazteriarentzat) egindako lana errespetatu dezala eta pentsa dezala berak ez dituela herriko gazteen nahiak inoiz ordezkatu ezta aldatuko

**"Gaztetxeo atek zabalik egongo dira beti"**

*"Nahiz eta nor den esan ez, motorrarekin harrapatu ninduen mutilak barkamena eskatuko balit, lasaiago geratuko nintzateke. Eta seguruenik bera ere bai".*

Iñaki Fernandez

# 18

**mila tona zabor jaso ziren iaz Arrasaten**

Arrasatearrok geroz eta zabor gehiago sortzen dugu. Dagoeneko bereiztu egiten ditugu zabor organikoak, paperak eta beirak. Datorren urtetik aurrera, ordea, Deba Garaiko Mankomunitateak 127 edukiontzi berri jarriko ditu Arrasaten plastikoak, metalak eta tetrabrikak aparte jasotzeko.

ITURRI ONETIK

**DVren egunkaria euskaraz**

El Periodico de Catalunya orain urtebete pasatxo ateratako katalanezko egunkariak izan duen arrakasta ikusita —izugarri ondo saltzen da, diru irabaziak ditu eta enpresaren irudia hobetzen lagundu dio—, *Diario Vasco* egunkaria ere pentsatzen ari da berak ere euskarazko egunkari bat aterako ote duen. Horretarako Xabier Gabilondo jarri du merkatua aztertzeko. Oraindik inork ez daki azterketaren berri eta, egitekotan, nola egingo lizatekeen euskarazko egunkari hori. Dena den, *Euskaldunon Egunkariak* laster izan lezake lehia zuzena.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK  
ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26)

**Disenatzailea:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemakalariak:** Liemi Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agornia, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28).  
© ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-ordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankeo kontzertatuta.**  
**Inprimatzailea:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Ignacio Perez.

Arrasateko Udalerriko laguntzailea  
Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntzailea  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzailea

## ENERGIA EOLIKOAREN INGURUAN

Ni ere pozten naiz. Gutxienez bi gauzatan gaude ados: gai hau kaleratzean eta energia gutxiago gastatzean.

Elgeako produkzioa hor dago: 66.000.000 kWh. Kopuru hau, asko ala gutxi da? Ideia bat emateko, etxeko kontsumoarekin konparatzen da (eta horrela oso garbi zehazten da), jendeak bi hilabetero zenbat gastatzen (eta ordaintzen) duen badakielako; baina ia inork ez daki zenbat Kwh dagokion argizatze publikoari, lantegi batean burdina egiteari, eta abar. Hego Euskal Herrian energia gehien kontsumitzen duen sektoreetako bat siderurgikoa da. Behintzun nuen (ez dakit zuzena den) Gipuzkoan Marcial Ucin-ek berak bakarrik, elektrizitatearen heren bat kontsumitzen zuela. Horrelako produktuak kanpora bidaltzen direnez, nik uste dut ez dela egokia (ez behintzat adibide garbiena) eskari orokorra biztanle kopuruarekin zatitzea. Dena den, produkzioaren kopuru hau hor dago, eta bakoitzak nahi duenarekin konpara dezake.

Bestalde, gai honi buruz hitzegiterakoan, energia berriztagarriek eskari orokorrean duten portzentaia ematen da; balio hau oraindik oso txikia da, zoritxarez: %2,5.

Orain arte, konferentzia askotan egon ondoren, ez dut inoiz olioari buruz ezer entzun hondakinak zirenean mintzagai. Nahiz eta bakarrik irudiagatik izan, uste dut erreziklatuko dutela.

“Diru sarrera hazienda lokalentzat” komentatu nuen: Elgeako kasuan, mozkinaren %75 baino gehiago ogasun publikoan geratuko da: Eolicas de Euskadi elkartearen %50 diru publikoz osatuta dago. Honi gehitu behar zaizkio jarduerarekin lotuta dauden zergak (BEZ, elkarreana, jarduera ekonomikoarena...).

Nire artikuluan “2.000.000 kWh atera daitezke” esan nuen, ez nenbilen Elgeari buruz hitz egiten, baizik eta 600 Kwko aerosorgailu batek leku on batean produzi dezakeenaz. Datu hau ez dago “puztuta”, “hustuta” baizik. Egiazko datuekin, Aumategigañan (Elgean) neurtu genituen datuekin (Ikerlan) eta 600 Kwko potentzia kurbarekin, 2.142.457 Kwh atera zitezkeen. Noski, Elgean, puntu guttietan ez dira baldintza berberak ematen, eta beraz, ez zatekeen produkzio berbera aterako.

Gasteizen ekainaren 29an energia berriztagarriari buruz izandako jardunaldian, garrantzi oso handia eman zioten energia gutxiago eta egokia-gogastatzeari. Energia berriztagarriak erabiltzeak ez du ekarriko eskariaren igoera, kontsumoaren arazoan gainerako kontzientziatzia baizik.

Badirudi beste gauza batean ados gaudela. Zuek diozue parke hau “elektrizitate eskararen hazkundera asetzeko eraikiko dela”. Beraz, eskari hori betetzeko energia eolikoa erabiliko da, eta termikoa saihestuko.

Energia eolikoaren pro-

dukzioak, produkzio termikoa murrizten duenez, lehena bigarrenarekiko alternatiba bat da, baina ez da posible 24 MWko parke eoliko batekin 500 edo 1.000 MWko zentral termiko edo nuklear bat ixtea (bai ordea zentral termikoaren produkzioa gutxitzea). KWh “berde” bakoitzak, KWh “marroi” bat ordezkatzan du.

Energia eolikoa, eguzkiarena eta minihidraulikoa bezala, ez da jarraia. Aerosorgailu batek urte batean 1.650.000 Kwh produzitzen baditu (Elgea kasuan 66.000.000 Kwh / 40), produkzioaren balio honek irakurketa oker bat egitera eramane gaitzake. Produkzio hau aerosorgailuaren potentziarekin (600 Kw) zatitzen badugu, urteko 2.750 ordu (3,8 hilabete) ateratzen dira. Zerbaki honi “urteko ordu kopuru baliokidea” deitzen zaio, eta zera adierazten du: aerosorgailuak potentzia maximoan funtzionatu beharko lukeen ordu kopuru urteko produkzio hori emateko. Honek ez du esan nahi urtean 2.750 ordu (3,8 hilabete) bakarrik egongo dela lanean aerosorgailu hori. Haize errota urte osoan zehar egongo da martxan, haizearen arabera potentzia batean edo bestean (dena dela, haize motelegia edo bortitzegia dabilenean aerosorgailua geldi egongo da). Normalean “urteko ordu kopuru baliokideak” 2.500 ordu gaintitzen dituenen, kokagunea ona da.

Zer da hobe, gutxi egitea ala ezer ez egitea? Zuen idatzietan esaten duzuenaz, par-

ke eolikoek energia gutxi emango dute eta ez dira ezereen alternatiba izango. Beraz, eguzkitiko energiak (nahiz termikoa, zein fotoboltaikoa) askoz gutxiago ematen duenez, baztertu behar al dugu?

Vicente Alonso

## ARKOKO LANGILEAK ERE EGINEKIN

Arrasate Press eta Arrasate Telebistako langileok, Egin irrati eta egunkariko langile guztiekiko elkartasuna adierazi nahi dugu. Komunikabide bi hauen ixtea adierazpen askatasunaren kontrako ekintza dela uste dugu eta gogor salatzen dugu. Egoera larri honetan animoak bidali nahi dizkiegu langile, bezero eta irakurle guztiei, tinko aurrera egin dezaten.

Oihane Agirre eta  
ARKOKo beste  
hamaika langile

## OPORRETARA GOAZ

Eskuetan duzun Arrasate Press hau abuztuko opor aurreko azken alea duzu. Irailaren 4an etorriko gara berriro.

Arrasate Telebistari dagokionez ere, gaur amaitzen ditu opor aurreko emisioak. Irailaren 1ean itzuliko da telebista, eguneroko albistegiak eskainiz.

Aldizkaria eta telebista egiten dugun guttion partetik, ondo pasau!

**HIES  
EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiralean  
Setatik Setara.

Tel.: 943 79 26 99

*Sili Sili*

Martxa eta estilo  
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN  
jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25


# Zer deritzozu Egin egunkaria eta irratia ixteari?

Garzon epaileak Egin ixtea erabaki zuen uztailaren 17an.



**Antxon Mendizabal**  
(52 urte)  
EHUko irakaslea

Demokraziaren aurkako atentatua da. Faszismo hutsa da Garzonen erabakia. Adierazpen askatasuna zauritua dago.



**Sabin Bolinaga**  
(75 urte)  
Erretiratua

Jende askok irakurtzen du eta ez zait ondo iruditzen egunkaria ixtea.



**Maite Barandiaran**  
(53 urte)  
Etxekoandrea

Oso, oso gaizki. Bidegabekeria hutsa iruditzen zait.



**Marta Eijarro**  
(24 urte)  
Langilea

Oso gaizki iruditzen zait.



**Sara Gonzalez**  
(20 urte)  
Langilea

Oso, oso gaizki. Manipulazioa da eta jendeari iritzia kentzeko operazioa besterik ez. Adierazpen askatasunaren aurka doa.



**Luis Sagasta**  
(47 urte)  
Kutxako langilea

Ez zait ondo iruditzen. Garzon epaileak horrelako erabakia hartu baino lehen, frogatu egin behar dira gauzak.




**Iban Navarro**  
(23 urte)  
Ikaslea

Gaizki dagoela uste dut. Ez dut asko jarraitu gaia, baina ez zait ongi iruditzen.



**Maria Rosario Perez**  
(38 urte)  
Etxekoandrea

Gaizki. Ez dute eskubiderik horrelako zerbait egiteko.



**MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**PUB**  
**HAIZEA**



# Arrasate

## LANAK

### TAKOLON

Biribila egiteko lanak.

### AZATZA ETXEETAN


Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiten ari dira.

### ARRASATE PASEALEKUA

Konponketak segitzen dute.


### OHARRA

Abuztuan Zarugalde 16 eta 17. zenbakiak, Ferrerías kaleko 22, 24 eta 26a., Pablo Uranga kaleko Iberdueroen txabola eta INEMen ondoko eraikuntza botako dituzte.




**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**


## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 24**



**LARUNBATA 25**



**IGANDEA 26**

Eguna oso lainotua aterako den arren, eguerdi aldera lainoak desagertzen joango dira. Tenperaturak beharantz egingo du.

Lainoak desagertuz joango dira egunak aurrera egin ahala. Goiz partean behelainoa izango dugu.

Lainoak agertuko dira goiz partean eta arratsalderako zeruak erabat lainotuko dira. Euri zaparradaren bat egin lezake.

## Ilargia



**ilgora**

Uztailaren 31n, osteguna, ilgora izango dugu. Hurrengo ilargi beteak, abuztuaren 8an, larunbata, izango da.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**

19:00 (elebiduna)

**Igandean:**

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**

19:00 (elebiduna)

**Igandean:**

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**

19:00 (elebiduna)

**Igandean:**

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Larunbatean**

19:00 (elebiduna)

**Igandean**

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa

**Larunbatean**

19:00 (elebiduna)

**Igandean**


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%88,0**



## Distantziak


Arrasate									
121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris



Kafe hauek denak...  
**FREXKOAK**  
**XIGORTU BERRIAK**  
**XUABEAK.....dira**



Egunero herriz-herri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



**BAQUE KAFE**  
 XUABEA

*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
 Zigorrola, 1 8. Pabeiloia  
 Tel.: 943 77 11 30  
 ARRASATE

# 24

## ostirala

■ ZINEA

*El Gran Lebowski*, Alai zineman, gaueko 22:00etan.

■ MUSIKA GAZTETXEAN

Arkada eta Enboskada talde arrasatearrak eta Sopolako Lager 33 taldeek kontzertua eskainiko dute gaztetxean. Punk emanaldia gaueko 21:00etan hasiko da.

# 25

## larunbata

■ ZINEA

*El Gran Lebowski*, Alai zineman, 19:30etan eta 22:00etan.

■ SANTIXAUAK

Goronaetan eta Aretxabaleto Ugastegi auzoan, Santixauak ospatuko dituzte egun honetan. Meza nagusia eta trikitilariak izango dira.

# 26

## igandea

■ ZINEA

*El Gran Lebowski*, Alai zineman, 19:30etan eta 22:00etan.

■ FERRERIASKO JAIAK

Goizeko 08:00etan botako dituzte etxafuegoak eta eguerdian, 12:00etan, txistulariak aterako dira kalejiran. 12:30etan kaleko hildakoen aldeko meza esango da, parrokiari. Arratsaldeko 17:00etan haur jolasak, bonba japoniarak, zaku lasterketak eta txokolatada izango dira, besteak beste. 19:00etan ikurriña jasoko eta txistulariak aterako dira. Ondoren, herri txikiteoa eta 7 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoentzako lasterketa, joko eta lehiaketak hasiko dira. 21:00etan herri azeria antolatu dute eta 23:00etan musika, herriko talde batek girotua. 24:00etan zaku lasterketa eta helduentzako jolasen txanda izango da.

# 27

## astelehena

■ ZINEA

*El Gran Lebowski*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

# 28

## asteartea

■ ZINEA

*El Gran Lebowski*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

# 29

## asteazkena

■ DANTZA AMAIA ANTZOKIAN

Albaniako Alba folklore taldea arituko da Amaia antzokian. Saioa gaueko 22:30etan hasiko da. Sarrera 800pta. kostako da.

# 30

## osteguna

■ JAI AMAIERA ITURBIDEN

Iturbide egoitzan amaiera emango diote udako egitarauari. Horretarako dantzaldia antolatu dute Txinparta taldearekin. Dantzaldia 17:00etan hasiko da, egoitzan bertan.

# 31

## ostirala

■ SAN INAZIO EGUNA

Urtero bezala, San Inazio eguna dela eta, erromeria egingo da Kanpazarreko pagadian. Urbixan ere ospatuko dute jaiegun hau.



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

# GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

• Txitxinpe •

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE • Tel.: 943 - 79 67 76

# TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



■ **59AN JAIOTAKOEN AFARIA MUSAKOLAN**

1959an jaiotako musikolarrek afaria izango dute abenduaren 12an. Izena emateko Txinato tabernara jo, edo deitu Amaia Mendikuteri.

■ **FERRERIASKO JAIK**

Uztailaren 26an ospatuko diren Ferreriasko jaietan egingo den herri afarirako txartelak Ertz, Artea eta Aracelirenean daude salgai.

■ **AHT-REN AURKAKO AKANPADA**

AHTren Aurkako Asanbladak, akanpada antolatu du Legutianon. Akanpada uztailaren 24tik abuztuaren 2ra izango da. Besteak beste, hitzaldiak, mahai inguruak, kontzertuak eta kalejirak antolatu dituzte. Berri gehiago izateko 929 89 14 56 zenbakira egin daiteke dei.

■ **ARRASATEKO FUTBOL TALDEAK**

Arrasateko Futbol Taldeak dei egiten die oraindik kontua helbideratu gabe duten bazkideei, uztailaren zehar 15:00etatik 20:00etara eta abuztuaren zehar 09:00etatik 12:00etara Atxabalpeko bulegotik pasatzeko edo 943 79 81 51 zenbakira deitzeko. Haurrak, gazteak eta 18 urtetik 24rakoek derrigorrez Atxabalpeko bulegoetan egin beharko dute.

■ **JAIK NONAHI**  
Abuztuaren zehar ere jaiegun asko izango dira Arrasaten eta inguruetan.

Abuztuaren 3an esaterako, Udala auzoko jaiak ospatuko dira San Eztebe eguna izango da eta. Bestalde, abuztuaren 5ean, asteazkena, Andramari Zuriaren eguna dela eta, Erguiñen eta Bedoñan jai egingo dute. Aretxabaletan abuztuaren 14tik 17ra Andra Mari jaiak ospatuko dituzte. Abuztuaren 24an, astelehena, San Bartolome eguna ospatuko deute Uribarri baserri-auzoan eta Eskoriatzako Mazmela auzoan.

■ **GAZTEAK ETA KOMUNIKAZIOA**

Arrasateko Udaleko Gazteria eta Emakume sailek IX. Argazki lehiaketa antolatu dute Gazteak eta Komunikazioa izenarekin. Argazkiak urriaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dira

Gazte Zerbitzuan. Bestalde, eta Emakume Saileko sari bereziari dagokionez, emakumezkoen ikuspuntua, mundua, errealitatea hobekien islatzen dituen argazkiak 40.000 pta.ko saria eskuratuko du.

■ **ITSASOTIK ITSASORA**  
Debaguek "Itsasotik Itsasora" gazteei zuzendutako bizikleta ibilaldia antolatu du abuzturako. Trenez Gironaraino joango dira eta ondoren bizikletan itzuliko dira Hondarribiraino. Berri gehiago AEDn izango duzue.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala, 24
- Ruiz, Maala
- Larunbata, 25
- Morales, San Andres
- Igandea, 26
- Amezua, Santamaina
- Astelehena, 27
- Zabala, Zarugalde
- Astearte, 28
- Ruiz, Maala
- Asteazkena, 29
- Morales, San Andres
- Osteguna, 30
- Zabala, Zarugalde

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua

DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN



**BASTER-ALDE**

**J A T E T X E A**

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK

*Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon*

**MALLORCA**

Uztailaren 8 egun. Hotel \*\*\* Pentsio Osoa. Hegazkina Bilbotik. Prezioa pertsona bakoitzeko

**54.900** PTA.tik HASITA

3 hilebetan ordain dezakezu

1<sup>er</sup> Tala herri-herri

**VIJES EROSKI BIDAIAK**

ZURE ERRESERBA EKAINAREN 30a BAINO LEHEN EGITEAGATIK Travel Clubeko 500 puntu "estra"

LARUNBATETAN arratsaldetik ere ireki egiten dugu EROSKI HIPERMERKATUETAKO bulegoetan

USTEAK USTE

**Aurrera egin**

**N**iri ez zait *Egin* gustatzen, ez itxuraz ezta edukiz ere. Horregatik, ez dut erosten. Arrasaten, berriz, badira laurehun-bostehun bat lagun nik bezala pentsatzen ez dutenak eta egunero-egunero *Egin* irakurtzen dutenak. Horiek, jakina, nik beste eskubide dute beren gustuko egunkaria izateko.

Joan den astetik arrasatear horiek —eta euskal herritar askok hortik zehar— *Egin* barik geratu dira, egunkaria argitaratzen duen enpresako zenbait kidek ustez ETArekin zerikusia omen dutelako.

Argi dago *Eginek* etsai asko dituela eta behin baino gehiagotan ibili direla *Itxi guran*. Zergatik orain? Abertzaleen kontrako ehiza hasi delako. *Egin* itxi aurreko egunetan ABC egunkariak jo zuen abisua: "ETA y el PNV son la misma cosa".

Demokrazia hau gaizki ibiliko da, irauteko alderdi politiko baten zuzendaritza osoa espetxeratu behar badu eta haren inguruko hedabideak isilarazi. Irakurleek kontrakoa esaten ez duten bitartean, *Egin* ek kalean behar du.

Joxe Aranzabal



**Adierazpen askatasuna: denon eskubidea ote?**

Nora Isasi\*

**P**ren gobernuak ezker abertzalearen, hots, herri honetako sektore inportante baten aurka uneoro daraman politika zapaltzaileak azaldu du dagoeneko edalontzia gainezkatzen duen azken ttanta. Herri osoa geratu da ikuspegi bat/batzuk ezagutu ezinik; dozenaka mila irakurle eguneroko irakurgairik gabe; milaka interesdun (akziodun, babesle, iragarle, saltzaile) erabat kaltetuta; ehundaka langile, egun bate-tik bestera, lanbiderik gabe; zenbait arduradun, zer leporatzen zaien ere argi jakin gabe, giltzaperatuta... Eta hau guztia "demokrazia" eta "legezkotasunaren" izenean, baina, berriro ere, herritarron oinarritzko eskubide bat urratuz: adierazpen askatasuna, alegia.

Bai, *Egin* egunkaria eta izen bereko irratia ixtea adierazpen askatasunaren aurkako eraso zuzena

da, nahiz eta zenbaitzuk bestelakorik esatera ere ausartu diren, inolako lotsarik gabe.

Zilegia dela, legezkoa dela edo antzeko aitzakiarik esaterik ez dago, are eta gutxiago *Egin*en aurka azken urteotan izandako beste hainbat eraso, beharbada apalagoak, baina azken hau bezain zentzugabeak, kontuan izaten baditugu.

Erredakzioaren eta bertoko ordenagailu eta artxi-boen miaketa, kazetariaren behin behineko atxilotetak, langileon etxeotako telefonoen "pintxaketak"... dagoeneko, eta azpalditxo, egu-

“  
Egin ixtea  
adierazpen askatasunaren  
aurkako eraso  
zuzena da  
”

neroko ogia genituen.

Egunkari eta irratia bat besterik gabe ixteak bezain mina eman dit ondorengo erreakzio askoren zurikeriak. "Inolaz ere ez dela komunikabide bat itxi nahi izan, delitugintzan ziharduen enpresa bat baizik", inolako frogara eta ikerkuntzarik gabe esan eta berehala *Eginek*, edo dena delakoak, zenbaitzuen gustuko ez den informazioa kaleratzen segitzen duela eta, kezkatu azaldu dira asko. Ergelak dira edo ergeltzat hartzen gaituzte?

Bien bitartean, eta aurrez atxiloturik segitzen duten nire lankideei elkartasuna adieraziz, *Eginek*, bestelako izen batekin bada ere, azken 20 urteotan egin duen antzera, lanean segituko duen esperantza eta ziurtasuna daukat.

Euskaldun orok arazo nazionalaren aurrean informazio guztia eta zehatza jasotzeko beharra eta eskubidea daukagulako, sektore inportante baten eguneroko ahotsa ezin isil daitekeelako, edonolako ideologiaren gainetik adierazpen askatasuna bermatu behar delako...  
*Egin* egingo dugu!

\* *Egin*-eko kazetaria

**BASABE JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 943 79 91 84  
ARETXABAETA

**ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritizatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

**OÑATI**

**1 Kalezarra hankaz gora**

Hasiak dira Kalezarran galtzada harriak jarri aurretiko lanak. 121 milioi pta.ko aurrekontuarekin zoladura aldatu nahi da, zenbait hobekuntza egin eta argiteria aldatu. Gabonetarako amaituta egon liteke. Lan hauekin hirigune historikoan galtzada harriak jartzeko lanen bigarren aldiari ekin dio Construcciones Moyua enpresak. Proiektu hau Kalebarrian hasi zen iaz eta Atzeko Kalen, kantoietan eta herriko plazan amaituko da.

**ARETXABALETAK**

**2 Motorraz jo eta ospa**

Bizikletan zihoala lasai-lasai lagun batekin batera, su bizian omen zihoan motor batek harrapatu egin zuen Iñaki Fernandez mondragoetarra. Iñaki eta motorzalea —16 bat urteko gazte bat— lurrean geratu ziren. Hasieran honek barkamena eskatu zion, baina jendea inguratzen hasi zenean, motorra hartu eta alde egin zuen. Zauritua odoletan eraman zuten Eskualde Ospita-



lera. Apurtuta dauka sudurreko hezurra, lepoko mina geratu zaio eta besoan ebaki galanta. Hala ere, horrek baino, min handiagoa egin zion gazteak alde egin izanak. Izena ez esan arren, hark barkamena eskatzea gustatuko litzaioke.

**BERGARA**

**3 Euskal Herria Kantuz**

Euskal Herriko bost abesbatza bildu ziren joan den larunbatean Bergarako Santamaina auzoko jaietan. Bergarako

Aritzetaekin batera, Etxarri Aranaz abesbatza, Gernikako Andra Mari, Baionako Xaramela eta Gasteizko Alaitz aritu ziren. Euskal Herriko ahotsik ederrenetakoak kanturako tradizio luzea duen Bergaran.

**GATZAGA**

**4 Jakionek kapital zabaltzea**

Gatzagan dagoen Jakion enpresak 10 milioiko kapital zabaltzea egin nahi du. Deba Garaiko udalei proposatu die 20.000 pta.ko 500 akzio erostea. Jakionen proposamenaren arabera, udalek era proportzionalen erosteko lituzkete akzioak, bizi-lagunen eta baserri kopuruaren arabera, alegia. Badi-rudi udal gehienek jarrera proposamenaren aldekoa dela. Jakion orain urtebete sortu zen, Deba Garaiko baserriarren produkzioari irtenbide bat emateko. Baserriko barazki eta fruitu kontserbak egiten ditu. Deba Garaiko Mendi Nekazaritzako Elkarateak eta Leintz Gatzagako Udalak sortu zuten, 36 baserriarekin batera.



**VIAJES ECUADOR**

**Parkeak:**

- Poitiers-en asteburuak
- Paris-Frantses parkeak zirkuituak
- Port-Aventura asteburuak

**Zirkuituak:**

- Cantabria
- Asturias
- Galizia
- Andaluzia
- Extremadura
- Port-Aventura

1998ko urrira arte

Kontzezino, 2 Tel.: 943 79 14 06

# Pesak Arrasate-Gasteiz ibilbideko bi autobus kendu nahi ditu

Jende gutxik erabiltzen dituztela eta, Pesa autobus enpresak Arrasate-Gasteiz ibilbidea egiten duten bi autobus kendu nahi ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiak jaso du enpresaren asmoa eta, printzipioz, onartu egin du. Arrasateko Udalak, hala ere, erabaki horren kontrako alegazioak bidali ditu diputaziora. Foru erakundeak onartuko ez balitu udalaren arrazoiak, Pesaren erabakia irailaren lein sartuko litzateke indarrean.

Pesak kendu nahi dituen autobusak hauek dira: Gasteiztik Mondragoera gaueko 21:30etan irteten dena eta Mondragoetik Arabako hiriburura gaueko 22:30etan joaten dena. Enpresako arduradunen esanetan, oso jende gutxik erabiltzen ditu autobusok. Gasteiztik irteten dena, esate baterako, lau bat lagunek hartzen dute egunero. Arrasateetik abiatzen dena, berriz, are eta jende gutxiagok erabiltzen du. Pesako bozeramaileen esanetan, iazko urritik ekainera bitartean autobus honek 14 lagun eramantzen zituen.

Arrasateko Udala auto-



Jende gutxik erabiltzen omen ditu autobusak.

busak kentzearen kontra agertu da eta alegazioak bidali dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari enpresaren asmoa onar ez dezan.

## ORDUTEGI ALDAKETAK

Pesak hainbat aldaketa sartuko ditu zenbait autobusen ordutegietan.

- Donostia-Gasteiz arratsaldeko 17:45etan irteten

dena, aurrerantzean 18:15etan abiatuko da, bidaia Eskoriatzarako bukatuz. Aldaketa honek ez luke izango eraginik ordu-tsu horietan Gasteizera doazen bidaiarien artean, Gasteizera doazen bi autobus Arrasateen egongo baitira 19:00etan.

- Eibar-Eskoriatza egiten duena, goizeko 07:00etan irten barik, irailetik aurrera

06:50etan abiatuko da. Horrela Mondragon Unibertsitateko Arrasateko eta Eskoriatzako campusetara datozen ikasleek errazago izan dezaten eskolan goizeko 08:00etarako egotea.

- Arrasate-Eibar autobusak ere aldatu egingo du 06:05etako irteera ordua. Aurrerantzean 05:55etan irten go da.

## Hitz Egin plataforma eratu da Egin egunkariaren alde

Arrasateko hemeretzi taldek eta elkartek Hitz Egin izena duen plataforma sortu dute, *Egin* egunkaria eta irratia irekiera eskatzeko. Astearte arratsaldean prentsaurrea eskaini zuten udaletxeko ple-no aretoan.

Plataformako bozera-

maileek adierazi zuten legez, *Egin* egunkaria eta *Egin* irratia ixtea adierazpen askatasunaren aurkako eraso da. Azken hau Euskal Herriak jasan duen azken erasotzat jo zuten. Euskal gizarteak egoera larria bizi duela adierazi zuten. Larrie-

na da, haien ustez, hiru botereak —exekutiboa, legistatiboa eta judiziala— bat datozela.

*Egin*en aldeko mobilizazioetan parte hartzeko deia zabaldu zuten. *Egin* itxita dagoen bitartean, lanean segituko du.

## Istripu larria

Astearte Unai Sanchez, 19 urteko gazte mondragoetarra auto istripuan hil zen Gasteizen, 240 Nazional errepidean. Gidatzen zuen autoa errepidetik atera eta gaztea bertan hil zen. Autoan zihoazen beste bi lagunak larri zauritu ziren.

## astea bi hitzetan

■ **Gizalde zentrua**

Joan den astean Gizalde zentrua aurkeztu zen Donostian. Borondatezko lana eta gobernuz kanpoko erakundeen jarduna bultzatu nahi ditu. Bultzatzaile nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundia, Gotzaindegia eta Euskadiko Kutxa dira. Gotzaindegiko Hezkide Eskolak zuzenduko du, baina Gipuzkoako osoan izango ditu ordezkariak, horretarako Euskadiko Kutxaren bulegoak erabiliko ditu eta. Interesadunenak 900 555 900 telefonora dei egitezaz.

■ **Sei herritar Euskara Biziberritzeko Planean**

Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onartu du orain dela gutxi Euskara Biziberritzeko Plana. Plan hau egiten Euskal Herriko jende askok hartu du parte, tartean Arrasateko sei lagunek. Jesus Goienetxe kooperatibetako kideak eta

Nerea Alzola Irakasle Eskolako irakasleak batzordeko kide moduan hartu dute parte. Aitor Orobengoak teknologia berriei buruzko txosten bat idatzi du. Txatxili-purdi elkartean lan egin duten Amaia Gabilondok eta Urri Urizarrek, berriz, aisialdiari buruzkoa. Eta Jose Felix Diaz de Tuesta Arrasateko Udaleko Euskara teknikariak ere prentsa idatziari buruzkoa.

■ **Laranja koloreko edukiontzia**

Datorren urtean Deba Garaiako Mankomunitateak 127 edukiontzi berri jarriko ditu Arrasaten plastikoak, metalak eta tretrabrikak aparte jasotzeko. Dagoeneko bereiztu egiten dira zabor organikoak, paperak eta beirak. Tretrabriko ontziak Valentziara eramango dira, plastikoak Mardrilen birziklatuko dira eta metala txartara bihurtuko da.

■ **Laster garabi zerbitzua**

Hirigunean automobilak uzteko dauden arazoak konpontze aldera, badirudi Arrasateko Udalak garabi zerbitzua jarriko duela laster. Azken osoko bilkuran behintzat lau milioi pta.ko diru multzoa bereiztu zuen garabiak erretiratu dituen autoak gordeko diren biltegirako. Egunkari batek jakinarazi zuenez, bestalde, abendu aldera TAO zerbitzua jarriko litzateke Arrasaten, OTA famatua alegia.

■ **Baserri bideen mapa**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro departamentuak Gipuzkoako baserri eta mendi bideen mapa egin eta udal guztiei helarazi die. Arrasateko Udalak zortzi zuzenketa egin dizkio mapari. Zuzenketa jaso eta laster jarriko da indarrean baserri eta mendi bideen foru araudia.

“

“MCC Fagor Elektragailuak eta Irizar autobus egilearen eskutik heldu da Marokora. Fagor izan zen heldutako lehena eta gaur egun bere sektoreko nagusitasuna eskuratu du, urtero merkatu kuota hazkunde esanguratsuk lortuz. 1995ean sortu zuen elektragailu enpresa bat Mohamedian, Marokoko hiri garrantzitsu eta populatuena den Casablanca ondoko hiri batean. 650 milioi pezeta inbertitu zuen marokiar bazkide batekin batera. Bazkide horrekiko harremanak arazo ugari ekarri zizkion eta azkenean euskal enpresak elkartearen osotasuna erosi zuen. Harrezkero enpresak ez du arazorik izan eta jadanik lantegia zabaltzeko asmotan ari da berogailuak ere egiteko”.

DANIEL UDALAITZ

Argia, 1998ko uztailaren 12an



## JENDE GUTXI AUTOBIDEAREN KONTRA

Jende gutxi bildu zen, berrehun bat lagun, larunbat arratsaldean Eibar-Gasteiz autobidearen kontra egin zen kale agerraldira. Antolatzaileen ustez, Donostian hiru ordu lehenago Egin egunkariaren alde egin zen manifestazio handiak izan zuen zerikusirik horretan.

## AB Asesores-ek zuretzat aukeratu ditu...

munduko inbertsio fondorik onenak... fondo bakar batean

## AB Fondos RV FIM

Dei izaguzu 943 76 54 35 telefonora eta jakinaraziko dizugu.

Gutxieneko inbertsioa: 100.000 pta.

## AB ASESORES

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6

S. Lorenzo Industrialdea

Tel: 943 76 54 35

2570 BERGARA

http://www.abasesores.es

## ANA ETA TXUS, INORI EZER KONTATU GABE?

Larunbatean isilpean ezkondu zineten bai, baina... hemen sekretuak laster argitzen dira. Dena den, zorionak!!



## BRETOIAK ARRASATEN

Joan den astean bretoi talde bat izan zen Mondragoen. Kenper herrikoak dira (75.000 bizilagun) eta "Arrasate-Kenper" elkarteko kide. Senidetasan

hitzarmena egin nahi dute gure herriarekin. Argazkian, Eugenio Iturriotzen ondoan, Padrig, Marc, Jean-Pierre eta Gurvan. Santamasetan itzuliko dira.

## EL PERDIGUERO

Argazkiko taldeak urtero egiten du San Ferminak inguruan irtenaldi bat Pirinioetara. Sei urtean

eginak dituzte Aneto, Perdido, Hiru Erregeen Mahaia, etab. Aurten El Perdigerora (3.222 m.)

joan ziren, Benasque ondora. Ezkerretik zutik, Julio Martin, Oscar Unzurrunzaga, Jabier

Larrañaga, Aurrean, Ramon Gonzalez, Imanol Mazarredo eta Ricardo Azurmendi.



**ARAOTZ** Merenderua

**Ingurune zoragarrian  
lagun artean  
ondo pasatzeko aukera**

Araotz auzoa, 2 • OÑATI  
Tel.: 943 78 35 26



**Pavimentos AGR**  
AROTZEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



## TXERNOBILGO HAURRAK

Joan den ostiralean Corazon de Encina elkarteko kideek askari gozoa prestatu zieten Txernobiletik etorritako neska-mutikoei. Aitzakia ederra elkarren berri izateko eta barre batzuk egiteko. Laster Ukrainara itzuliko dira.

## GORRITIREN OILARRAK

Santamainako jaietan ezin animaliak falta. Azken aldian bezala, Gorritik ekarri zituen: pottokak, txerritxoak, zekorrak eta argazkiko

oilarrak, burruka itxurak egiten. Bero izugarria egiten zuen, baina jende ugari bildu zen Agerre plazan.



Leire Zubikarai margolari eta zaharberritzaile arrasatearra azken ikutuak ematen ari zaizkio San Joanen irudi honi. Mende honetakoa da eta igeltsuan egina. Parrokoak bere bulegoan jarriko du.

## SAN JOAN ZAHARBERRITUA



Loramendi kirolak

Abuztuan  
goizetan  
zabalik !!

Abuztu guztian 9:30etatik 13:00etara ZABALIK.

Auto elektriko bat egiteko ideia orain dela lau urte sortu zen Eskola Politeknikoan. Potentzia Elektronikoko laborategiko arduradunak harremanetan jarri ziren MCCrekin, eta honek Europa osoko azterketa bat egin zuen. Auto elektrikoaren ideia ez zela zentzugabea zioen azterketaren emaitzak. MCCren onepena irabazita, eskolak hiru garren kide bat bilatu zuen: Iberdrola. Orduantxe, energia elektrikoak bultzaturik ibiliko zen beribilaren diseinuan eta produkzioan murgildu ziren buru belarri.

**Z**eus izena jarri zioten auto elektrikoaren lehenengo modeloari. Azken lau urteetan, auto bat baino gehiago atera dute Eskola Politeknikoan, beti ere, aurrekoa hobetu nahian. Azkenean, lau urteren buruan bukatu beharreko proiektuari amaiera eman diote.

Proiektua, beraz, gorpuztu egingo da. Datorren urtean Ordiziako Hobelan enpresak —MCCrekin elkarlanean dabilena— lehenengo hamar autoak aterako ditu. Horieta hiru Posta zerbitzuarentzat izango dira, beste hiru Iberdrolarentzat eta beste hiru Telefonicarentzat. DHL mezulari enpresak ere asmoa azaldu du etorkizunean konsortzio horretan sartzeko.

Zeusek suzko froga gainditu beharko du hirietako errepideetan. Bilboko La Casillan ipiniko dituzte auto elektrikoak kargatzeko lehenengo toki edo hornitegiak. Dena ongi joanez gero, etorkizunean 500 beribil kaleratuko dira urtero. Erronka benetan garrantzitsua.

# Ze Hamar auto elektriko kale

## ESKOLA POLITEKNIKOAREN LANA

Eskolako hamasei ikasle ibili dira Potentzia Elektronikoko laborategian auto elektrikoan lan egiten. Ikasleek karre-

ra bukaerako proiektuak praktikara eraman dituzte, autoaren arlo elektronikoan lan eginez.

Mikel Sanzberro, elektrotika laborategiko irakaslearen

esanetan, ahalegin handia egin dute azken beribila lortzeko. "Bi motor desberdin egin behar izan ditugu: korrante jarraitukoa eta aldizkatzailekoa. Azkenean aldizkatzaile-

### ZERBITZUAK:

- **Kontsumoa:** 0,25 kwh/km (g.g.b. 2 pta/Km)
- **Lastertasunik handiena:** 90 km/h
- **Ziklo urbanoan autonomia:** 70-100 km.
- **Azelerazioa 0-50 km/h:** 7 segundu.
- **Karga bolumena:** 2m. kubiko
- **Kargarik handiena:** 500 kg.
- **Berriro kargatzeko denbora gehiena:** 8 ordu.
- **Berriro kargatzeko sistema azkarra:** 15 min. (%80)



### KUTSADURA MAILA

- **kutsadura akustikoa:** 0 dezibelio
- **ingurugiroaren kutsadura:** emisioa 0 (erabileraren lekuan)



# ES:

## etuko dira datorren urtean

koarekin dabil, garestiagoa bada ere, pisu txikiagoa baitu. Horrez gain, azterketa eta froga asko egin ditugu: baterien inguruan, autoa energiaz berrizteko kargadorei buruz-

koak eta autoak behar dituen zerbitzuei dagozkienak”.

Bigarren urtean, autoaren arlo elektronikoa bukatu zen. Handik aurrerakoa, lan gehiena piezak, hau da, bolantea,

gurpilak, balaztak, argiak, etab. homologatzea izan da. Aurtun, aire girotua eta berogailua gehituko diote autoari.

Kanpoko diseinua Kataluniako enpresa batek egin du. Modelo desberdinen artean, bitxiena aukeratu zuten eskolakoek, autoaren berezitasuna nabarmenarazteko. Karrozeria plastikoaren antzerakoa den komposite izeneko materialarekin egina dago. Kompositeak altzairuaren gogortasuna du, baina askoz arinagoa da. Gainera ez da erdoiltzen eta ez du mantenimendurik behar. Istripua izanez gero, egitura guztia jartzen zaio berriro. Altzairuzko autoa baino merkeagoa irteten da.

### AUTOA ENTXUFATU

Auto elektrikoa, hiri edo herri txikien barruan ibiltzeko diseinatu da. Hiri barruko zerbitzuetan izango du bere etorkizuna, garraio publikoan batez ere.

Energiarik gabe geratu baino lehen, autoak 70 km. egiteko ahalmena du. Horrek esan nahi du sei edo zazpi orduz jarraian ibiltzeko gai dela. Berak daraman kargadore txikiarekin, beste sei ordu behar ditu kargatzeko, baina kargadore azkarrarekin, 12-14 minuturekin nahikoa da. Azken horrekin %80 kargatzen da, beste laupabost ordurako haina.

Zaila bada irudikatzea ere, autoak entxufe bat du bere

atzealdean. Beraz, entxufe atera eta garajea edo hornitegietan jarriko diren kargadore azkarretan entxufatu behar da.

Energia kargadoretik autoa entxufatu beharrik barik pasatzeko sistema diseinatzen ari da ikasle bat. Indukziozko sistema horrekin, jendeak ez luke autoa kargadore aldamean uztea besterik izango, ordu laurden baino lehenago autoa berriro prest izateko.

### EKOLOGIKOA ETA MERKEA

Bere abantailarik handiena kontsumoari dagokiona da, noski. Egunean 200 pezeta baino gutxiago gastatzen du eta gainera ez du kutsatzen. Nahiz eta erosteko garestia izan, eguneroko kontsumoa dela eta, zortzi urteren buruan amortizatu daiteke.


Mikel Sanzberroren iritziz, auto elektrikoak normaltasunez erabiliko diren egunak ez daude urruti. Dena den, alde aurretik bateriaren arazoa konpondu beharko da. “Gaur egun, bateriek bolumen izugarria dute. Zeusen bateriak 350 kilo ditu. Gainera oso garestiak dira — dio Sanzberrok—. Dena den, bi faktorek bultzatuko dute beribil elektrikoaren arabilera. Batetik, gero eta larriagoa den kutsaduraren arazoak eta bestetik, bateriak egiten dituzten etxeen apostu ikaragarriak. Fabrikatzaileek diotenez, hemendik bospasei urtera bateria txikiagoak eta merkeagoak egingo dituzte. Hor dago koska: baterien arazoa konpondu ondoren, hamabost urteren buruan auto elektriko asko ikusiko ditugu kaleetan barrena”.

Hori da albistea: hiri eta herri handietako kutsadurari irtenbidea eman diezaiokeen autoa badabilela eta Arrasaten egina dela.

Marian Porcel ■

### Bateriak

- Berunezkoa, mantenimendu barik.
- Kargadorea autoaren barruan.



### PISUA ETA NEURRIAK:

- Pisu osoa: 1.750 kg.
- Luzera: 3.450 mm.
- Zabalera: 1.850 mm.
- Garaiera: 1.700 mm.

**JOSE LUIS URRUTIA (ABENTURAZALEA)**

# “Bidaia agentzietara txartela”

**Lurralde eta jende berriak ezagutzeko bidaia bat da Jose Luis Urrutia. Txerto eta pilula ugari hartu behar ditu datorren astean Indiara eta Nepalera joan ahal izateko, baina ez zaio inporta. Musakolan bizi den 56 urteko gizon honek ez du mugarik. Mundua bezain handia du esperientzia berriak bizitzeko gizona.**

**— Noiz sortu zitzaizun abenturazaletasuna?**

— Gogoratzen naizenetik, astebukaerero lagunekin Pirineotara edo Euskal Herriko mendietan barrena ibili izan naiz. Betidanik gustatu izan zait mendia eta bidaiatzea.

**— Lehenengo bidaia luzea noiz egin zenuen?**

— 77an, lau lagunek auto bat hartu eta Frantzia, Suitza, Alemania, Austria, Hungaria, Jugoslavia, eta Italia ibili genituen hogeitau egunean zehar. Hurrengo urtean, bidaia luze-

agoa egin genuen oraindik, Txekoslovakia, Errusia, Finlandia eta Norvegiaraino heldu ginen eta.

**— Gaur egun ez diren edo banandu diren lurraldeak ezagutu dituzu orduan...**

— Bai, eta garai desberdinak ere bai. Orduan Intourist txartela atera behar zenuen bidaiatzeko. Aldez aurretik ibilbide osoa eraman behar zenuen prestatuta. Moskura joan ginenean adibidez, galdetu ziguten zenbat km. eta zenbat egun egin behar genituen. Nortzuk ginen eta nondik nora genbiltzan kontrolatzen zuten.

**— Harrezkero asko aldatu dira Ekialdeko Europako lurraldeak...**

— Are gehia-

go Afrikako zenbait lurralde. 82an, Zairen, Ruandan, Tanzanian eta Burundin izan nintzen. Sekula ikusi ditudan lurralderik zoragarrienak. Orain, gerraren ostean, edertasun hura guztia suntsituta egongo da seguru asko. Han Kilimanjaro igo genuen.

**— Beraz bidaiatzerokan, mendia egitera joaten zara?**

— Ez beti. Adibidez, Nepalen baimena eta materiala behar dituzu eta ez du merezi denbora horretan galtzea. Lurraldea ezagutzera joaten naiz, eta ahal denean, mendia egiten dut.


**— Zer aldaketa izan dira nabarmenenak, bidaiatzeko kontuari dagokionez?**

— Errazagoa da lurralde batetik bestera ibiltzea. Ez da behar lehen besteko baimenik. Bestalde, lehen oso merkeak ziren lurraldeak gaur egun asko garestitu egin dira, Austria adibidez.

**— Nola planifikatzen dituzu bidaiak?**

— Bidaia agentzietara hegazkinaren txartelaren bila joaten naiz

**“82an, Zairen, Ruandan, Tanzanian eta Burundin izan nintzen. Sekula ikusi ditudan lurralderik zoragarrienak. Orain, suntsituta egongo da, seguru asko...”**



# erostera joaten naiz bakarrik”

bakarrik. Lurraldea aukeratu, txartela eskuratu eta gauzak datozen erara egiten ditut. Ez dut sekula bidaiaren ibilbidea prestatzen.

**— Hizkuntza ez da oztopo izaten?**

— Ez. Ingeles pixka batekin edo zeinuen bidez, ederto komunika zaitezke. Turkian egon nintzenean, han inork ez zekien ingelesik eta hala ere, lagun mordoa egin nuen.

**— Arriskurik pasa duzu bidaiaren batean?**

— Arriskua baino gehiago, beldurra. Salvadorren izan zen. Gerra bukatzeaz zegoen

eta talde paramilitar ugari zebilen. Las Huertasen egon ginen, Pakito Arriaran hil zuten herrian. Herritik San Salvadorrera joateko, hiriburura, gerrilla askotan burukatu zuen Begoña izeneko emakume durangarrarekin geratu ginen. Berak ilundu baino lehen joan behar ginela esan zigun, baina berandutu egin zitzaigun. Gure *pick-upeera* igo eta zera esan zidan Begoña: “kontrolen batekin egiten baduzu topo, ez geratu. Aurrera egin. Harrapatu kontrolekoak edo egin nahi duzuna, baina aurrera egin”. Bagenekien kontroletan jendea hiltzen zutela. Benetako beldu-

rra pasa nuen, baina zorionez, ez genuen kontrolik aurkitu.

**— Grabatuta geratu zaitzun momenturik?**

— El Salvadorren emakume bat ezagutu genuen. Bere senarra eta bi semeak nola hil zituzten kontatu zigun afa-loste batean. Berak negar apur bat egin zuen, baina guk berak baino gehiago.


**— Txilen eta Argentinan behin baino gehiagotan izan zara azken urteotan...**

— Benetan gustuko ditut. Lehen aldia bakarrik joan nintzen Buenos Airesera. Han Euskal Etxea zegoela eta, afal-

tzera joan nintzen. Hango nagusiek nongoa nintzen galdetu eta euskalduna nintzela jakiterakoan, etxeko giztiak aurkeztu zizkidaten. Denak ziren euskal jatorrikoak. Hurrengo eguna Gabon Zaharra zen eta bakarrik nengoenez, eurekin afaltzera gonbidatu ninduten. Arrasateko kooperatibetara askotan lanera etortzen den Uriarte izeneko batekin eta bere familiarekin afaldu nuen. Sekulako festa egin genuen!

**— Betegabeko ametsik?**

— Urtebete hartzea Txile alderik alde ezagutu ahal izateko. ■



**WERU®**

**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
 BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
 Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
 ARRASATE



*Salterain*

**PVC-zko ate eta leihoez gain:  
 moketak,  
 zoru arinak,  
 kortxoa,  
 Louverdrape  
 kortinak,  
 Kortinoba, testila...**

Zazpina urterekin Makatzenako pilota txapelkunak

## IBAI BOLINAGA ETA AITOR FERNANDEZ

— **Noiz hasi zineten pilotan?**

— **Ibai Bolinaga:** Orain dela bi urte.

— **Aitor Fernandez:** Hilabete edo izan-  
go da hasi nintzela.

— **Ilusiorik egin zizuen Makatzenan irabazteak?**

— **IB:** Bai, noski.

— **AF:** Bai, irabazten dudan lehenengo txapelketa da.

— **Zein da zuen pilotaririk gustukoena?**

— **IB:** Titin eta Arretxe.

— **AF:** Aitor Elkoro.

— **Eurak bezalakoak izango zarete?**

— **IB:** Bai, profesionaletarara iritsiko gara.  
— **AF:** Bai, minik edo ez badugu izaten eskutan, bai.

— **Lau t'erdian ala frontoi osoan?**

— **IB:** Bietan ondo.

— **AF:** Frontoi osoan ere defenditzen gara.

— **Zein partida ikusiko zenukete gus-  
tura?**

— **IB:** Titin eta Arretxe, Retegi eta Belokiren aurka.

— **AF:** Elkoro eta Titin, Eugi eta Lasaren aurka.

— **Pilota partida guztiak telebis-  
tan eman behar-  
ko lituzkete?**

— **IB:** Bai!

— **AF:** Bai,  
denak.

— **Beti joku-  
tu behar duzue  
binaka?**

— **IB:** Ez,  
beti ez, elkarren  
kontra ere jokatu  
dugu.

— **AF:** Orain  
arte gehienetan  
elkarrekin aritu gara.

— **Familian pilotariak dituzue, eraginik  
izan du horrek?**

— **IB:** Bai, nire aitona Bolinaga pilota-  
ria zen.

— **AF:** Bai, hiru. Nire aitona Abarisketa  
erremontista zen eta bere bi anaiak eskuzko  
pilotariak.

— **Pilotariak aitonen aldetik zarete?**

— **IB:** Bai, hari eskertzen diot pilotari  
izatea.

— **AF:** Bai eta profesionaletarara iristen nai-  
zenez, nire lehenengo txapelketa aitonari  
eskainiko diot.

— **Bestelako kirolak gustatzen zaizue?**

— **IB:** Futbola, baina nahiago dut pilo-  
ta. Futbolean jende gehiegi ari da.

— **AF:** Niri futbola, baina jokatzeko  
nahiago pilota, futbolean jende asko aritzen  
da eta erraza da partida bukatu edo jokatu  
barik geratzea.

— **Zuen partidetan apusturik egiten da?**

— **IB:** Nik afariak jokatzeko ditut aitare-  
kin eta nik irabaziz gero, neuk hautatzen dut  
non afuldu.

— **AF:** Hamabi urte egiten ditudanean  
aitaren kontra jokatu behar dut eta orduan  
dirua jokatuko dugu.

— **Udaran zer  
egiteko asmoa  
duzue?**

— **IB:** Errioxara  
joango naiz. Han  
Titinek eta  
jokatzeko  
dute-  
nez, eurekin  
jokatzeko  
aukera izan-  
go dut.

— **AF:** No-  
jara joango  
naiz eta han ere  
pilotalekuren  
bat egongo  
denez, pilota  
eramango dut.



## TXIRRINDULARITZA Asteburua errepidean



Fagor taldeko  
gazte mailako txi-  
rrindulariak

larunbatean, Berga-  
rako Santamaina auzoko VII.  
saria jokatu zuten. Mondra-  
goetarrek Udanako mendatea  
igotzen egin zuten ihes, bai-  
na azkenean tropelak harra-  
patu egin zituen eta garaipe-  
na Bergarako Sumofic talde-  
ko Peru Sagarnak eskuratu  
zuen. Igandean, Gabiriako  
Aztiriarako XX. Igoeran har-  
tu zuten parte. Txirrindulari  
asko kanporatu zituzten, 88tik  
37 baino ez ziren helmugaratu.  
Garaipena Andoaingo  
Mikel Barberenak eskuratu  
zuen.

Asteburu honetan jai izan-  
go dute Fagorreko txirrindu-  
lariak. Abuztuaren 9an itzuli-  
ko dira errepideetara.

Herriko zikloturistek ere  
beste irteera bat izango dute  
asteburuan. Oraingoan, 105  
km.ko ibilbidea egingo dute  
eta Udana, Aztiria, Otzaurte  
eta Etxegarateko mendateak  
igoko dituzte. Irteera igande-  
an, 08:30etan, Monterronen.

## PILOTA Usurbilgo txapelketa



Usurbilgo eskuz  
binakako pilota  
txapelketan afi-  
zionatu mailan,

Zugasti eta Zuazu-  
biskarrekin 22 eta 14 irabazi  
zieten Azuazu eta Martinez de  
Ulateri. Gazte mailan, Lazka-  
nok eta Belategik Segurako  
bikote baten aurka 22 eta 5eko  
garaipena eskuratu zuten.  
Asteburuan beste norgehia-  
goka bi jokatuko dituzte pilo-  
tari mondragoetarrek, Usur-  
bilgo eskuz binakako pilota  
txapelketan.

# Finalak jokatu ziren Makatzenan

Larunbatean jokatu ziren Makatzenako eskuz binakako pilota txapelketako finalak. Sei bikote aritu ziren aurrez aurre txapela lortu guran. Lehenengo norgehiagoka aurre benjaminetik jokatu zuten izan zen. Aitor Fernandezek eta Ibai Bolinagak, sekulako garaipena lortu zuten Aretxabaletako pilota eskolako Akixu eta Uribetxeberriaren aurka. Bi mutikoek 22 tantura jokatu zuten eta 8an utzi zituzten atxabaltarrak.

Haur mailako finala ere goiz partean jokatu zen. Alde batetik Abasolo eta Jimenez I. izan ziren eta haien aurrean Arroiabe eta Zuazua. Haur mailako txapela Xabi Abasolok eta Jon Jimenezek jantzi zuten, 22 eta 16 irabazi zuten eta. Biek adierazi zigutenez, beste bikoteak kale asko egin zituen eta horrek partida euren alde ekarri zuen.

## BETERANOEN TXANDA

Beteranoek arratsaldean jokatu zituzten finalak Obenerrekako pilotalekuan. Hasierabatean 3. eta 4. tokiak ere jokatu behar ziren, baina azken



Jon Jimenez eta Xabi Abasolo izan ziren haur mailako txapeldunak.

orduko aldaketek lagun arte- jokatu beharreko partida. Aurrez aurre Zugasti-Aroste-

gi eta Osinaga-Zubillaga. Hauer ere sekulako partida izan zen. Bi bikoteek garaipena eskuratu nahi zuten, baina azken momentuan markagailuak Zugasti eta Arostegiren alde egin zuen. Partida 22 eta 21 amaitu zen.

Ondoren final handia jokatu zen. Lazkano-Belategi eta Domingez-Zubillaga sailkatu ziren finalerako. Bigarren bikotearen atzelariarentzat bigarren norgehiagoka izan zen eta horrek ere izan zuen eraginik markagailuan. Azkenean Lazkano eta Belategi izendatu zituzten aurtengo Makatzenako eskuz binakako txapeldunak, 22 eta 19 utzi zituzten eta, Domingez eta Zubillaga.

## AUZOKOAK AMAIERAN

Makatzenako jaialdiari amaiera jartzeko, auzoko beteranoren arteko norgehiagoka jokatu zen. Hantxe aritu ziren Sierra eta Julio, Zapatero eta Karabiasen aurka. Laurek gogor eman zioten pilotari eta jokatzeke sasoian daudela erakutsi zuten. Azkenean 22 eta 12, Sierrak eta Juliok irabazi.

## Ane Europako txapelketan



Anek 1.500, 800 eta 400 m.tan arituko da.

Ane Lopez de Bergara Italiara abiatuko da asteburu honetan. Hantxe Europako Hegats Txapelketa jokatu du mondragoetarrak gazte mailan. Espainiako txapelketaren ondoren jakin izan zuen Anek Espainiako hautatzaileak bera hautatu zuela Europako txapelketan

parte hartzeko. Anek Espainiako errekorra eskuratu zuen 1.500 m.tan hil honen hasieran, Murtzian jokatutako Espainiako txapelketan. Orain, berriz, 1.500, 800 eta 400 m.tan parte hartuko du. Hala ere, eta berak adierazi bezala, probatzera joango da, European mai-

la handia baitago. Dena den, duen guztia emango du txapelketa hau aukera paregabea da eta, Europako hegats igerilari onenekin neurtzeko.

Igandean hasiko den txapelketa abuztuaren 2an amaituko da eta Italiako Pescara hirian jokatuko da.



BLANKA JAUREGI, GAZTE BULEGOKO TEKNIKARIA

## “Gazteekin komunikazioa lortu nahi du Gazte Bulegoak”

Oporretan bidaia bat egin behar duzula eta informazioa jaso nahi duzula, atzerrira joan nahi duzula ikasketak egitera, edo diru laguntzen inguruko xehetasunak jaso behar dituzula...? Arrasate eta inguruko herrietako gazteek badakite nora jo: Gazte Bulegora. Hemen, duela zortzi urte, gazteek ateak irekita dituzte euren intereseko gaietara aurkitzeko. Horixe da han egiten den lana. Aurreko urtean sei mila gazte inguru pasatu ziren bulegotik. Aurten erraz gaudituko da zenbaki hau.

### — Zein da Gazte Bulegoaren helburua?

— Gazteekin komunikazioa lortzea da gure lanik garrantzitsuenak. Gazteen interesak, kezkak eta zalantzak jaso eta aldi berean eurei informazioa ematea, bideratzea. Bi norabide ditu: informazioa jaso eta eman.

### — Gazte Bulegoak badu harremanik herriko gazte taldeekin?

— Bai, jakina. Hau Gazteria Batzordearen zerbitzu bat da, eta alde horretatik gazteek udalarekin komunikatzeko duten ate berezia da. Herrian gazteen aldetik egiten diren ekimenak hemendik bideratzen ditugu. Harreman egonkorra eta zuzena dugu Mondragoeko gazte taldeekin.

### — Mondragoeko gazteria partehartzailea da?

— Horri erantzuteko beste herri batzuetara begiratu beharra dago, konparazioa egin ahal izateko. Nik esango nuke baietz. Arrasateko gazteek badituzte ekimenak eta mugimendu partehartzailea dago. Egia da orokorrean gutxi batzuk direla salta guztietan dabilzanak, beti berberak izaten dira.



Baina bai, badago mugimendua.

### — Jendea Gazte Bulegora datorrenean, zer kezka izaten ditu?

— Lau sail nagusi daude: hezkuntza, aisialdia, lana eta eragozpenari buruzko informazioa. Urteko sasoi bakoitzean esan daiteke gai bat edo bestea dela nagusia. Baina orokorrean lau gai hauen inguruko informazioa dugu.

### — Oporrei begira, gazte asko pasatu dira hemendik euren bidaiak prestatzeko?

— Bai, bai, makina bat. Azken aste hauetan jendez gainezka gabiltza. Gazteek leku ezberdinen berri jaso nahi dute edo txartelak eta baimenak nola atera behar diren jakin nahi dute. Guk hemen herrialde gehien informazioa dugu eta gazteek lasai kontsulta dezakete.

### — Nora joango dira oporretan gazte mondragoetarrek?

— Leku eskatuak Asturias, Andaluzia eta Galizia dira. Atzerrira ere joango dira makina bat.

## aste gazte

### ■ LANA:

• Durangoko Udalak musika tresna hauetarako irakasleak behar ditu: biolina, xirula, txistua eta klarineta. Epea oraindik zehaztu gabe.

• Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeak kirol hastapeneko irakasle lanpostu bat deitu du. Titulazioa: lizentziaduna. Epea: uztailek 28.

• Azpeitiko Udalak gizarte laguntzaile lanpostu bat deitu du. Titulazioa: gizarte lanean diplomaduna eta 3. Hizkuntz eskakizuna. Epea: abuztuak 3.

### ■ DIRU LAGUNTZAK:

• Turismo bekak 98, estatuaren zein atzerriko lan praktikak burutzeko. Turismo arloan lizentziadun eta diplomadunentzako zuzendutako. Epea: abuztuak 4.

• Epaitza eta fiskaltza karrerarako lehiaketak prestatzeko dirulaguntzak, zuzenbidean lizentziadunentzako zuzendutako. Epea: abuztuak 6.

### ■ TURISMO INFORMAZIOA:

• Oporrei begira turismo informazioa behar baduzue, Gazte Bulegoan galde dezakezue. Hori bai, kontuan izan uztaile bukatzean dagoela eta abuztuaren itxita egongo dela.

### ■ ATERPE TXARTELA:

• Oporretan aterpetxeak erabiltzeko asmoa baduzue, aterpe txartela ateratzea komeni zaizue. Eskuratzeko, NANen fotokopia eta 500 pta. (250 pta. gazte txartela izanez gero). Hori bai, hiriburu bateraino joan behar.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65

## “Gazteek udalarekin komunikatzeko duten ate berezia da hau”

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Etxebizitza salgai Bizkaia etorbidean. Tel.: 943 79 22 92.
- Etxebizitza salgai Gipuzkoa Etorbidearen 35ean, Arrasaten. Tel.: 943 79 20 72/943 79 36 84.
- Apartamentua salgai Donostian, Egia auzoan. Tel.: 943 43 11 00.

### 3. Errentan emateko

- Ikasleei alokatzeko etxebizitza Caceresen. Jantzia dago eta hirigunean. Tel.: 943 79 92 90.
- Etxebizitza alokatzen da Erguinen, ikasle edo antzekoiei. Merkea. Hiru logela ditu. Tel.: 943 79 66 92.
- Uztaile, abuztu eta irailera etxebizitza eta bungalow-ak alokagai ditugu Oropesan. Interesatuak deitu 964 31 08 55 telefonora. M<sup>a</sup> Angeles Elizondo.

### 4. Errentan hartzeko

- Senar-emazteek etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Tel.: 943 79 75 34.
- Etxebizitza hartuko genuke alokairuan Arrasaten. Tel.: 945 45 01 80. Urtzi. Deitu asteburuetan.
- Ikasle batzuek lau logelako etxebizitza hartuko genuke alokairuan. Tel.: 943 55 44 65.
- Ikasle batzuek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 84 40. Astegunetan deitu. Gorka.
- Etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tel.: 945 24 07 01.
- Hiru ikaslek etxebizitza hartuko genuke alokairuan Arrasaten. Tel.: 943 88 97 16. Agurtzane.
- Etxebizitza behar dut Arrasaten, lan tokiz aldatu dudalako. Tel.: 943 78 91 10. Dorleta.
- Karrera bigarren maila egiten ari diren lau neska arduratsuk etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Egoera oneko etxebizitza nahi dugu. Elgoibar. Tel.: 943 74 10 74. Bidatz.
- Neska batek etxebizitza bat alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 88 13. 22:00etatik aurrera.

### 5. Etxe konpartituak

- Gela baten bila nabil etxe konpar-

#### ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

#### GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

#### LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

#### LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

#### IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

#### MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

#### DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

#### HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

titu batean, Arrasaten. Tel.: 929 96 85 87. Juanjo.

• Gela bat alokatzen da, alde zaharrean. Tel.: 943 79 87 59.

• Donostian etxea osatzeko bi neska behar dira. Tel.: 943 79 74 03.

• Irailetik aurrera gela bat behar dut Arrasateko etxe batean. Dei egin 943 71 24 00 telefonora (221 luzapena, David), bulego orduetan.

• Etxebizitza osatzeko bi lagun behar dira Amaran, Donostian. Egoera onean dago. Tel.: 943 79 53 58 / 943 79 27 42.

• Gela bat alokatzen dut Juan Carlos Gerra kaleko 4an, 2. solairuan eskuinean. Tel.: 943 79 68 00. Iluntzean deitu.

• Irailetik aurrera beste batzuekin bizitzeko prest nago, ikasleekin ahal bada. Tel.: 943 62 59 35. Silvia.

• Iruñean etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. Etxea berria da eta egoera onean dago. Tel.: 943 79 59 12.

• Abuztu erditik edo irailetik aurrera gela bat behar dut Arrasateko etxe batean. Dei egin 943 71 24 00 (221 luzapena, David) telefonora, bulego orduetan.

• Bi neska behar dira Donostiako erdialdeko etxebizitza bat osatzeko (98-99 ikasturtea). Tel.: 943 79 68 32 (Anabel)/943 79 38 42 (Ione).

• Ikasleentzako gela bat eskaintzen da. Tel.: 943 79 45 87.

• Pertsona batentzako gela bat alokatzen da San Andresen. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 943 79 92 99.

• Mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 89 73. Arratsaldez.

#### GARAJEAK

### 9. Errentan emateko

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 943 79 19 64.

#### LANA

### 17. Eskaintzak

• Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko neska prest. Tel.: 943 79 68 77. Vanessa.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74. Goizetan edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume esperientziaduna prest etxeko lanak egiteko eta gaixoak edo umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 11 46.

• Esperientziadun neska prest orduka garbiketarako (atariak, etxeak, dendak, e.a...). Tel.: 943 79 03 03. Deitu 21:00etatik aurrera.

• Neska tituluduna prest aerobic hezitzaile edota muskulazio begirale gisa lan egiteko. Tel.: 943 79 10 53. Deitu 21:00etatik aurrera.

• Lanak ordenagailuz pasatzen dira. Tel.: 943 79 11 54.

• Emakume euskalduna prest umeak edo nagusiak zaindu edo etxe garbitzaile gisa lan egiteko. Tel.: 943 79 07 73.

• Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

### 18. Eskaerak

• Sukaldari laguntzailea behar da jatetxerako. Tel.: 943 78 35 26.

• Ume bat zaindu eta etxeko lanak egingo lituzkeen emakumea behar da Aramaioko baserri batean. Tel.: 929 422 314. Deitu 21:30etatik aurrera.

• Neska edo emakumea behar da tabernako sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Esperientziadun sukaldaria behar da. Arratsaldean deitu. Tel.: 943 79 00 60.

• Jostuna behar dugu dendan lan egiteko. Interesatuak bidali datuak 259 posta kutxatilara.

• Arrasateko gimnasio batek fisioterapeuta bat behar du. Interesatuak bidali curriculum honako helbidera: Pardo Estetika Zentrua (943 79 52 17); Iparagirre Plaza, 4 behe, 20500 Arrasate.

• Neska bat behar da abuztuan ile apaindegí batean lan egiteko. Esperientzia eskatzen da. Tel.: 943 79 22 59. Lan orduetan deitu.

• Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko neska bat behar da. Tel.: 943 77 00 80.

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: 945 44 50 86.

• Jostuna behar dugu errezelak edo kortinak eta lumatxak egiteko. Tel.: 943 79 27 27.

Lan oso erraza, etxetik mugitu barik.



Berri gehiago nahi baduzu, bidali gutunazala eta zigilua helbide honetara: A.M.R. Anboto kalea, 20 - 1. ezk. 20500 Arrasate.

- Iraila hasieran taberna batean lan egiteko zerbitzaria behar da. Tel.: 943 79 60 43.

- Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 56 30. 18:00etatik aurrera.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

- Udan eskola partikularrak emango nituzke. Matematika, fisika eta kimika. Tel.: 943 79 51 19 / 943 79 81 66. Ane.

- LH, DBH. latin eta ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Espe-rientziaduna eta merkea. Tel.: 943 79 47 35.

- 14 urte arteko gazteei matemati-ka eta fisikako eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 943 79 81 70.

- Psikologoa eskola laguntza ema-tertu. Tel.: 943 79 86 28.

- Informatikako eskola partikularrak (Pascal, RPG, Clipper, Programazio metodologja, e. a...) ematen dira. Tel.: 943 79 11 54.

- Ingeniaritza Teknikoko 4. mailako ikasle batek matematika eta fisika-ko eskolak emango lituzke udan. Tel.: 943 79 51 68. Gorka (eguerdian deitu).

- Eskola partikularrak ematen ditut. Matematika, fisika eta geometria deskriptiboa. Uztailen eta abuztuan.

Tel.: 943 79 82 01. Iñaki. Deitu ilun-tzean.

### 21. Eskakerak

- Etxean eskola partikularrak hartu-ko nituzke, BTT 2. mailako elektro-teknia, matematika, ingelesa eta gaztelania. Tel.: 943 79 34 53

- Kontabilitateko eskola partikularrak jasoko nituzke. Deitu gaueko 21:30etatik aurrera 943 79 36 83 telefonora. Idoia.

- Txinera ikastea gustatuko litzaidake, norbait eskola partikularrak emate-ko prest balego. Deitu 943 71 50 72 telefonora.

- Euskaraz dakien irakaslea behar-ko nuke irailaren 1etik aurrera, ESO-ko 1. mailan hasiko den gazte bati eskolak emateko. Tel.: 943 79 06 24 / 943 79 94 52.

- Estatistikako eskolak hartuko nituz-ke. Tel.: 943 79 79 12.

- Paleografia eta Diplomatikako esko-lak jasoko nituzke uztailen. Tel.: 943 79 94 92. Pilar.

- Kontabilitate eta matematika finan-tzieroko eskola partikularrak hartu-ko nituzke uztailen eta abuztuan. Tel.: 943 79 48 99.

## MOTORRA

### 23. Saldu

- Kawasaki Vulkan 800, 93. urtekoa eta gehitutako zerbitzuekin salgai, 600.000 pta.tan (negoziagarriak). Tel.: 943 77 10 30.

- Yamaha TZR-80 motorra salgai. SS-V. Tel.: 943 79 73 54.

- Denda erremolke alemaniarra sal-gai, egoera onean. Tel.: 943 79 73 04.

## DENETARIK

### 26. Saldu

- Hamsterra salgai, 200 pta.tan. Tel.: 943 77 17 82.

- Urte bat baino ez duen errepideko bizikleta baten koadroa salgai. Ezau-garriak: Tuberia Columbus SLX Pina-relo JJC; urkila zuzena, kolore horia eta 60ko neurrikoa dena. Oso mer-kea. Tel.: 943 71 42 32. Iñigo.

- Trialeko bizikleta salgai. Bikotrial X. clas 219. Tel.: 943 79 93 03.

- Mendiako bizikleta salgai. Zazpi urte-ra artekoentzat. Merke. Tel.: 943 79 79 53.

- Umeak autoan eramateko aulkia salgai. Tel.: 943 79 79 53.

- Errepideko bizikleta erdi berria sal-gai. 15.000 pta. Tel.: 943 79 60 81.

- Diapositiba proiektorea bere pan-tailarekin salgai dago. Reflecta Dia-mator AF markakoa da. Tel.: 943 79 63 12. Sebastian. Deitu eguerdian.

- Planeta Agostini argazki ikastaroa salgai dago. Praktikak barnean ditu. 8 liburuki. Tel.: 943 79 63 12. Sebastian. Deitu eguerdian.

- "Nosotros los vascos" enziklope-dia salgai dago. 21 liburuki. Tel.: 943 79 63 12. Sebastian. Deitu eguerdian.

- Yamaha 250 berezia saltzen da. SS-AM matrikula, 12.000 km. 250.000 ptatan eta oso egoera one-an. Tel.: 943 79 55 88.

- Eskaintza berezia: american Pit-bull terrier txakurkumeak salgai. Marroiak, red nose-arekin eta Patrick odoleko-ak. 35.000 pta. Txertatuak. Tel.: 943 79 37 17.

- Fotokopiagailua salgai. Egoera one-an dago. Tel.: 943 77 04 98.

### 27. Erosi

- 2m.ko kaxa duen erremolkea ero-siko nuke. Tel.: 943 73 19 60. Jose-ba. 21:00etatik 22:00etara.

- Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

- Katuarentzako transporting-a ero-siko nuke. Neurri erdi edo txikiakoa. Tel.: 943 77 10 20.

### 31. Galdu

- Ostiralean Express tabernaren ondoko lorategian Adidas markako jertse gorria galdu nuen. Mesedez, aurkituz gero, deitu: 943 79 61 65.

### 32. Aurkitu

- Etxeko katu bat aurkitu dugu. Bel-tza da eta lepokoa ere badauka. Tel.: 943 79 25 07.

- AH hizkidun bizkar zorro berde-laran-ja morea aurkitu dugu. Arrasate Press-en galdetu. Arantzazu.



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismokak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



**5**0. hamarkadaren bukaeran, gauegun eskualdeko ospitala den eraikinean zegoen Arrasateko Eskola Profesionala. Ikasle gehienak mutilak baziren ere, nes-

kentzat eskola bereziak ematen ziren. Argazkiko taldeak jostintza, brodatze eta sukaldaritza eskolak hartzen zituen.

Ez dakizkigu neska guzti-  
tien izenak, baina bai arrasatearrak direla. Argazkia 58. edo

59. urtean atera zuten, irakaslearekin batera. Irakaslea taldearen erdian ikusten den moja da, Sor Juana izenekoa.

Ordutik hona zeharo aldatu dira gauzak. Eskola unitbertsitate bihurtu da eta ema-

kumeak etxeko lanetan aditu baino, ingeniariak itreten dira.

-----  
*Argazkia eta berriak:  
Marcela Horrillo.*



LASAGABASTER-en



**DOCKERS®**  
pants by  
Levi Strauss & Co.

**AUKERARIK ONENA**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**HONA HEMEN ZURE**

**UDAKO ARGAZKIAK**

**¡ PREZIORIK  
ONENEAN !**



**24 ARGAZKIKO  
ERROILUA**

**265 pta.**

**332 pta.**

**36 ARGAZKIKO  
ERROILUA**

FUJI 3 erroiluko paketean aurkeztua

 **IKATZ**  
CASA DE FOTOGRAFIA

• Iturriotz, 8 ARRASATE •

VITORIA BILBAO ELKANO MONDRAGON MADRID DEFE...

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate  
bihurtzen  
diren  
ilusioak

## SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g  
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

FAGOR



## BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52  
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42